

## • IRUTXULOKO •

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#) [Onartu](#)

2016-11-30

Nork: [Miren Azkarate](#) -Aza 28, 2016

### III. SAGARDO APURUA OSPATUKO DA ABENDUAREN 4TIK 8RA BULEBARREAN

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak antolatzen du eta egitarau oparoarekin dator aurtengoan ere



III. Sagardo Apurua ospatuko da abenduaren 4tik 8ra Donostiako Bulebarrean. Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak antolatzen du ekimen hau eta lau egunetan zehar egitarau oparoa izango du.

Lehena eta oraina elkartzeko helburua du Sagardo Apuruak, sagardoaren kultura eta historia ezagutzera ematea. Festa honen izenak berak ere historia du; Apurua, garai batean kupelak lehenengoz ireki eta dastatzeari deitzen zitziolako, irekiera ofizialaren aurretik egiten zen dastatzeari.

Donostian egitearen arrazoia ere historiarekin dago lotuta. Mende askotan zehar sagardoaren hiriburua izan zen hiria. Adibide gisara, Parte Zaharrak 100 sagardotegitik gora zituen.

Abenduaren 4an, goizeko 9:00tan emango zaio hasiera lau egunetako egitarauari. Astigarragatik Donostiara Urumea ibaitik jetsiko dute sagardoa, 11:00tan idien laguntzarekin Bulebarreraino garraiatuko dute eta 13:00etan inaugurazio ofiziala izango da Bulebarrean. Hortik aurrera lau egunetako egitaraua.



APURUA BULEBARREAN SAGARDO



MIREN AZKARATE

Ez dago iruzkinik

EGIN IRUZKIN BAT

Izena \*

Email \*

Website



Sagardo Apurua 2013. (Argazkia: Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte)

## Lan eskaintza

IRUTXULOKO HITZAK  
KOMERTZIAL BAT  
BEHAR DU

#### AZKENAK



SAGARRONDOAK SALDUKO DITUZTE LIZEO BERRIAREN ALDE



MANUEL MATXAINEN INGURUKO SOLASALDIA EGINGO DUTE AIETEN



GROSEKO SAN TOMAS JAIK BADU KARTELA



AMARAKO FRONTOIAREN PROZESUAREN JARRAIPENA EGINGO DU EH BILDUK "BERME GUZTIAK" IZAN DITZAN

